

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko urriaren 19a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**

**Iruñea** • Zabaldiren Elkartasun Astea hasiko da gaur, globalizazioari aurre egiten dioten taldeei hitza emanez

**Pello Ruiz** • «Abesbatza zuzendariak taldea motibatzen jakin behar du»



## Ferietatik supermerkatuara

Produktu ekologikoen merkaturak gutika-gutika handitzen ari da Nafarroan. Hori diote mundu ekologiko horretan murgildurik daudenek. Biolur, Landare eta Econavarra elkarteek lanari esker, geroz eta ekoizle gehiago dago, kontsumitzaile gehiago, saltoki gehiago. Orain, produktu ekologikoak saltzeko supermerkatua dago Iruñean: Hirixka. Hiru emakumek sortu dute ekozentro hori, eta, denda ez ezik, taberna eta jatetxea ere baditu. Osasun eta zapore kalitatea eskaintzen duten produktu horiek ferietatik supermerkatuara jauzia egin dute



• ARGAZKIAK: MIKEL SAIZ



# Iruñea • Elkartasuna eraikitzeke astea

Gaur abiatuko da Zabaldiren Elkartasun Astea, globalizazioa aztertzeke

**Zabaldik Elkartasunaren Astea antolatzen du urtero, munduko herrien arteko elkartasunean sakontzeko. Aurten globalizazioari aurre egiteko aukerak aztertuko dituzte, gaur hasi eta hilaren 27a arte.**

Aurtengo Elkartasun Astea ohi baino apur bat luzeagoa da, euskarazko ekitaldi gehiago ditu, eta Zabalditik kanpora aterahi nahi izan du. Horixe azaldu du Ani Moralesek, Zabaldiko kide-

ak. Gaur hasiko da astea, EHNE sindikatuko kide Paul Nicholson-ek Zaldiko Maldikon euskaraz emanen duen hitzaldiarekin. «Pentsatzen dugu globalizazioa gaur-gaurko kontua dela»,

erran du Moralesek. «Geroz eta jende gehiago ari da globalizazioaren kontra mugitzen. Globalizazioaren nondik norakoak aztertzeke egin dugu aste hau». Horretarako, txosten zabala

osatu dute, baita egitarau oparoa ere. Aipatzekoa da hitzaldiak ematera etorriko direnen artean badirela, besteak beste, Attac eta Tute Bianche mugimenduetako kideak.

Asteak 'Elkartasuna eraiki erresistentzia bultzatuz' leloa du. «Globalizazioaren ondorioak nahiko txarrak izaten ari dira eta izanen dira», dio Moralesek. «Horren inguruan borroka handi bat sortu da, non pertsonak eta taldeek parte hartzen baitute. Borroka hori bultzatu nahi dugu, elkartasuna jorratu globalizazioaren kontra lan eginez».

Moralesen aburuz, «hemengo jendeak pairatzen duen askotan zerikusi handia du Indian edo beste edozein tokitan gertatzen denarekin. Bakoitzak bere tokian egin behar du borroka, baina ikuspuntu globala galdu gabe. Hortaz, borroka globala egin behar da, beste moduko globalizazioa eraiki behar da».

## Zabaldi, etorkinei zabalik

Zabaldin egun hamahiru bat taldek egiten dute lan. Batzuk desagertzen dira, eta beste batzuk sortu. Bertako taldeak ez ezik, etorkinen taldeak ere hasiak dira Zabaldin sartzen, Moralesek azaldu duenez. «Ijito gazteen elkartek talde gisa sartu nahi du, eta Kamerungo eta Kongoko talde bana Zabaldin biltzen hasi da. Eta oso ongi iruditzen zaigu. Horretarako sortu zen Zabaldi, etorkinei zabalik egoteko».

Auzoko tabernariaren hilketaren kariatara, ordea, zenbait auzokide kexatu dira Zabaldira sartzen diren zenbait etorkin trafikatzailak omen direlako. «Hona sartzen dira beste edozein lekutara sartzen diren bezalaxe», dio Moralesek. «Arazo latza da, eta denon artean aurkitu behar dugu irtenbidea. Bizilagunek erran digute nortzuk ziren trafikatzuten zutenak, eta guk ahal izan dugun moduan eskatu diegu Zabaldi eta plaza ez erabiltzeko droga saltzeko. Argi gera bedi, etorkinen arazoekin bezainbeste arduratuta gaudela bizilagunen arazoekin. Azken batean, gu ere Nabarrerriako bizilagunak gara».

→ Asier Azpilikueta

Bera

## Dantza garaikide bete asteburu

Emanaldia eskainiko du gaur, eta ikastaroa asteburuan, Christine Burgos koreografoak, Lamixine BAT Berako Antzerki Taldeak antolatua. Inprobisazioan oinarrituta, *Aurkitutako gerra* ikuskizuna izanen du abiapuntu gaur, 20:00etatik goiti, Berako Kultur Etxean. Zuzeneko bi musikaririk paratutako doinuekin bi dantzari ariko dira dantza garaikidea eskaintzen.

Christine Burgos koreografo frantziarrak ikastaroa eskaini zuen joan den martxoan Beran, eta haren arrakastaren ondotik dator asteburu honetan berriz ere egiten den ikastaroa. Ikastaro trinkoa da, norberaren gorputzetik abiatuta, mugimendua eta oinarritzko kontuak ezagutzeko, eta, bide batez, dantza garaikidera hurbiltzeko saioa izanen da. Larunbat zein igande arratsaldean egiten da ikastaroa. Ekitaldi hau antolatzerakoan, antzerkigintza eta bertzelako adierazpenak landu nahi ditu Lamixine BAT taldeak, eta lanketa oso bat bilatu.

→ Jon Abril

## Goizuetak

### Aldizkari berria

Azken urteotan euskararen normalizazioaren aldeko hedabide aunitz sortu dira Euskal Herrian. Heldu diren hila-betetan, hain zuzen ere, Goizuetako biztanleek euskara hutsezko aldizkari berri bat irakurtzeko parada izanen dute. Leitza, Areso eta Goizuetako Euskara Zerbitzuaren ekimena izan da, eta Goizuetako 18 eta 20 urte bitarteko lau neska ari dira burubelarri oraindik izena ez duen kazeta berri bat argitaratu ahal izateko.

Leitzaldeko euskara teknikari David Anautek adierazi zuenez, «Leitzan egiten den @IMarmari@-izeneko aldizkariaren antzeko zerbait egitea pentsatu genuen».

Gehienbat gazteek gustuko duten gai ugari irakurri ahal izanen dira. Herriko musika taldeak, Gaztetxearen 10. urteurrena eta euskararen normalizazioa izanen dira, besteak beste, lehenengo zenbakian jorratuko diren gaiak.

→ Estibalitz Ortega

Zabaldiren Elkartasun Astea hitza emanen diete globalizazioaren aurka borrokatzen direnei. • EGUNKARIA



## Zabaldiren Elkartasun Astea

### Ostirala 19

19:30. Hitzaldia euskaraz. «Globalizazioa: transgenikoak, nekazaritza, abeltzaintza, Nekazarien Bideak». Paul Nicholson (EHNE). Zaldiko Maldikon.

### Larunbata 20

10:00. Lan saioa. «Globalizazioa eta gerra». Tom Kushar (Ekologistak Martxan - Madril) eta Fernando Mendiola (KEM - Iruñea). Zabaldin.

### Astelehena 22

17:00. Bakarrizketa euskaraz. «Glob... glob... glob!». Javier Barandiaran. Zabaldin.  
19:30. Zinema. «La ciudad está tranquila», Golemetan.

21:00. Bakarrizketa euskaraz. «Glob... glob... glob!». Javier Barandiaran. Iruñezar euskaltegian.

### Asteartea 23

12:30. Bakarrizketa euskaraz. «Glob... glob... glob!». Javier Barandiaran. NUPen.

19:30. Hitzaldia. «Globalizazioari erantzuteko bideak: ATACC mugimendua». Christophe Aguiton. Hizkuntza Eskolako erabilerari anitzeko aretoan.

20:00. Bakarrizketa euskaraz. «Glob... glob... glob!». Javier Barandiaran. Uharteko kultur etxean.

### Asteazkena 24

19:30. Hitzaldia. «Globalizazioa: emakumea eta gerra». Montse Cervera

(Dones Antimilitaristes - Bartzelona). Hizkuntza Eskola.

### Osteguna 25

18:00. Ipuin kontalaria euskaraz. E.D. Fundazioa. Aldezar taldearen lokalean.  
19:30. Hitzaldia. «Genoa: aurrekoak eta ondorengoak». Matteo Giacometti (Tute Bianche). Hizkuntza Eskola.

### Larunbata 27

10:00. Lan saioa. «Globalizazioa eta gerra». Tom Kushar (Ekologistak Martxan - Madril) eta Fernando Mendiola (KEM - Iruñea). Zabaldin.

### Erakusketa


Urriaren 19tik 31ra. Sebastiao Salgadorek argazki erakusketa. «Brasilgo Lur Gabeko Mugimendua». NUPen.



# Aras • Estellerria lirain

Aras herriak eskuratu du Herri Apainketaren III. Lehiaketaren lehen saria

Urtetik urtera Estellerria gero eta ederragoa dago. Bertako Turismo Partzuergoak herri, karrika, eliza eta etxeen apainketa sustatzeko antolatzen duen lehiaketa bere fruituak ematen hasi da dagoeneko.



Aras herriak irabazi du Estellerriko herri apainketen lehiaketa. Irudietan, La Balsa izeneko tokia. ● OSKAR MONTERO

ESTELLERRIKO MENDEBALDEAN dagoen Aras herriak irabazi du aurtengo Herri Apainketa Lehiaketaren aurreneko saria. Vianatik zazpi bat kilometro dagoen herri honek, Iturri Zaharra eta La Balsa izenez ezagunak diren parajeak atondu dituzte. Halaber, karrikak egokitu eta lorategiak jarri dituzte herrian barna. Arasen 230 lagun bizi dira, eta Udalak 20 milioi pezeta gastatu ditu lan horiek egiteko.

Joan den urteko lehiaketan aipamen berezia jaso zuen herri ttiki honek, eta orain, urte baten buruan, aurreneko saria eskuratu ahal izan du. Lehen sari horrekin 330.000 pezeta jasoko dituzte (13.200 libera). Diruarekin

zuhaitz gehiago landatzeko asmoa dute tokiko agintari politikoek.

Herri ttikiaren irudia hobetzea eta horren ondorioz kalitatezko turismoa sustatzea xede duen lehiaketa honetako aipamen berezia Esprontzeta herriak irabazi du, harraska atontzeagatik. Bertako 130 biztanleak poz-pozik daude garaietako usadioak gogora ekartzen dituen leku xarmagarri hau zaharberritu dutelako.

Orotara, bederatzi herri aurkeztu ziren. Deikaztelu, Torralba del Rio, Etaio, Acedo, Larrion, Antzin eta Villatuerta herriek eman zuten izena lehiaketan herri hauetako txoko ezberdinetan egin dituzten lanak direla-eta.

Partikularren sailean, Villamayor de Monjardin herriko bizilagun Valeriano Goñik eskuratu du lehen saria, garaietako etxe zaharrean egindako berri-tze lanengatik. Urte asko eman

ditu eraikinaren kanpoaldeko harria garbitzen, eta semeen laguntza ere izan duela aitortu du Goñik. Orain 165.000 pezetako saria (6.600 libera) jasoko du.

Norberak bere etxean egindako lanak saritzen dituen atal honetan bertze hamabost lagun aurkeztu ziren. Aipamen berezia Ollogoieneko biztanle batek eskuratu du, bere etxea nekazari etxe abegitsu bihurtzeagatik.

→ Kristina Berasain

## Zuhaitzen geruzak

Udazkena Larraburu-Enean. Zaldiak zalditegian gorderik. Neguko arropa esekitokian. Guardasola eta lokatzetako bota berriak atarian. Atzo piztu genuen lehenaldiz tximinia. Bexikulas (nire morroia) aurtengo egurra egitera laguntzen dut. Larraburu-Eneako basoak mututuak daude. Bexikulasek hautatutako pago bi botatzten ditu. Ez dago ihes egingo duen txoririk. Isiltasuna da nagusi hemen. Botatako zuhaitzen barruan urtez urte idatzitako egutegia gelditzen da azaleratua. Bertan udaberri oro idatzi dituzten haragi geruzek zuhaitzaren bihotzaren baitan orbitatzen dute. Bartzuk besteak baino handiagoak dira, baina dena da bizitza. Nequak, aldiz, ez dira inondik ageri. Neguetan zuhaitzak mututu egiten dira, ez dituzte elurte eta gau luzeak apuntatzen. Geruzen arteko marra beltz hori isiltasun sakon baten antzekoa da. «Honetaz ez dugu inongo iritzirik», esaten dutela ematen du. Ahots gora egindako hausnarketa hauek entzuterakoan «planetak ere zirkuluetan ibiltzen dira eguzkiaren baitan», esaten dit morroiak adaxkak aizkoraz txikitzen dituen bitartean, eta gero, «batek daki noren egutegi erraldoia edo haragi geruzak eginez...», bukatzen du sasipoesiaz. Asaldatu egiten nau Bexikulasek joera honek. Beti nire lana suntsitzen dabil tipoa. «Poetak poesiara eta morroiak egurretara», oihukatzen diot eskuak praketako sakeletan sartuak. «Bale, jefe!», erantzuten dit bizkarra emanda. Kabroi halakoa! Probokazio hutsa da, noski. Mila bider «Ados, jauna!» esan behar duela errepikatu diot, baina berak beti zirikatzen ibili behar. «Banoa, Bexikulas! Zutabea idatzi behar dut eta!, zera, Toyota Zalditegiaren aurrean utziko dizut (jajaja)». Toyotan sartu eta kalefakzioa eta irratia jartzen dut. Bexikulasek «De acuerdo, patron!» ozipindu batekin agurtzen nau. Etxetik hiru kilometrotara dauden bi pago hauekin zutabea idaztea otu zait bat-batean. Artikulu poetiko borobil bat osatuko dut. Zuhaitzen geruzen antzekoa. ●

## Etxalar • Uso pasaren besta igandean

ETXALARKO USATEGIAK DIRA, ORPOZ ORPO dituzten Sarakoekin batera, sareekin usoak ehizatzen dituzten bakanetakoak. Antzinako molde horren zaleek besta ospatuko da igandean, ohiturari jarraiki.

Urriko hirugarren igandeak hartu ohi du Usategietako Besta. Lizaieta gainaren inguruetan molde zaharrez ehizatzen dira usoak. Sareak baino ez dira erabiltzen ehizarako. Lehenik, palen bidez usoak jaitzarazten dituzte, turuta hotsekin batera. Modu horretan, lepoa pasatakoan sarerantz sartzen dira usoak, eta bertan harrapaturik gelditzen direnean behehitzen dira sareak. Eskuekin hiltzen dituzte gero usoak, banan-banan. Lan hori nola egiten den ikusteko parada izanen da igandean.

Inguruko herrietatik jende andana joanen da igandean Lizaietara oinez, ohitura izaten baita hori eskualdeko hainbetez jenderentzat. Azken aste honetan uso anitz pasatu



Usoak palen bidez jaitzarazten, Etxalarko usategi batean. ● EDURNE KOCH

da, eta igandeko besta ikusgarri egiteko beharrezkoa izanen da usoak orduan ere pasatzea, eguraldiak laguntzearekin batera, hori izaten baita igandeko bestako erakargarritasunik handiena.

Baina besta bezperatik hasiko da Etxalarren. Herriarrek bigarren urtez afaria egiten dute larunbatean, Anttonion. Garai ba-

tean kontzertu handiak egiten ziren bezperan, baina azken urteotan deus ere egiten ez zela eta, herriarrentzako besta prestatzen dute.

Igandean, berriz, arratsalde partean animazioa izanen da. Bazkalondan Kiki, Koko, Moko eta Flash pailazoen emanaldia izanen da, plazan. Haurrentzako emanaldiaren ondotik musikak hartuko du plaza, Bigira taldearekin dantzaldia izanen baita. Atsedenean zozketatuko dira hain preziatuak diren usoak. Dozena bat uso bizirik zozketatzen da. Horrekin batera, herriko bestetako motozerra erakustaldian egindako egurrezko hiru irudi ere zotz egingen dira. Urteroko moduan, bildutako dirua elkarte bati bideratuko zaio. Aurtengoa, joan den urtean bezalaxe, herriko Andra Mari dantza taldearentzat izanen da.

→ Jon Abril



# Produktu ekologikoe hiria

Hirixka, Euskal Herriko lehen ekozentroa, Nafarroan produktu ekologikoe duten indarraren erakusgarri da

**Produktu ekologikoen merkatua gutika-gutika handitzen ari da Nafarroan. Biolur, Landare eta Eonavarra elkarleen lanari esker, geroz eta ekoizle gehiago dago, kontsumitzaile gehiago, saltoki gehiago. Berriki, Euskal Herriko lehen ekozentroa zabaltu dute Iruñean. Hirixkak, produktu ekologikoen hiriak, jatetxea, taberna eta denda ditu.**

**H**IRU EMAKUMEREN ARTEAN ERAIKI DUTE Hirixka. Mabel Cañadak 22 urte egin ditu lurra lantzen eta animaliak hazten. Iasone, Mabelen ahizpa, urteetan izan da Eonavarra elkartean, nekazaritza ekologikoen onurak gizarteratzen. Eta Alicia Usanos Landare kontsumitzaileen elkartean fundatzaileetako bat izan zen. Toki eta egoera askotan topo egin ondoren, pentsatu zuten zer edo zer muntatu behar zela Nafarroako nekazaritza ekologikoari bestelako neurria emateko.

## Mitoekin bukatzeko

Bi urte eman dituzte Hirixka gauzatzen. Iragan uztailaren 6an zabaltu zuten, Bergamin kaleko 53 zenbakian. Ezin erratan ahal da jendea gainezka dagoenik, baina, Mabelen hitzetan, uda «espero baino hobea» izan da eta «kontent» dira, egin zituzten aurreikuspenen barruan. Jendeak, batez ere, jatetxea erabiltzen du. Denda mantoago doa.

«Nekazaritza ekologikoaren inguruan hainbat tabu daude», komentatu du Mabelek. «Garestiagoa dela, produktu guti dagoe-

la, ezin duzula elikatze osasuntsua mantendu jarraipenik ez dagoelako, produktu ekologikoak jaten dituztenak begetarianoak direla, bere elikadura monotonoa eta aspergarria dela... Mito horiekin guziekin bukatu nahi dugu. Horregatik, dendaz landara, taberna eta jatetxea ere muntatu genituen».

Hirixka eraikitzeko 100 milioi pezeta bildu behar izan zituzten Mabel, Iasone eta Alicia. Zaila egin zitzaion. «Guk ez genuen dirutza hori», dio Mabelek. «Gainera, gure etikarekin bat zetorren finantzaketa bilatzen genuen. Zorionez, proiektu honek gizarte oinarri zabala izan du. Nekazaritza ekologikoaren ekoizleen eta kontsumitzaileen partetik lortu dugu laguntza».

## Jatetxea, taberna eta denda

Hirixkak hiru gune ditu: jatetxea, taberna eta denda. Laugarren gunea, «Kontsumitzaileen etxea», zabaltu gabe dago oraindik. Tabernan ardo, garagardo eta zukueta barietate handia dago. Baina coca-colarik ez. Jatetxean, hasierako plateretan barazki kremak, arrozak, entsaladak eta pastak es-

kaintzen dituzte. Bigarren plateretarako bi adar dituzte, begetarianoendako eta haragijaleendako. Hirixkan lasai asko jaten ahal da haragi xerra. Ondoren, etxeko postrea. Menu begetarianoak 1.700 pezeta balio du, eta haragia duenak, 2.500.

Eta dendan eguneroko erosketako edozein produktu aurkitzen ahal da: ogia eta opilak, sasoiko barazki eta frutak, lekariak eta laboreak, esnea, haurrentzako elikagaiak, jogurtak, zukuak, pizzak, ura, komunen papera, konpresak, hortzetako pasta...

Dendako harategian aratxe eta bildotsa ekologikoa saltzen dute, urdaiazpikoa, eta batzuetan txerria. «Oilaskoa ostegunetan etortzen zaigu, baita berehala bukatu ere», erran du Mabelek. «Oilasko eskaera handia dago, aspaldi galdu zuelako zaporea eta hormonez gainezka dagoelako. Gure oilaskoek ez dute hormonarik eta hori prezioan nabaritzen da; ez dago purtxileria baten prezioan, haragi baten prezioan baizik».

## Joxe Uranga • BIOLURREKO TEKNIKARIA

### «Produktu ekologikoe kalitatea eskaintzen dute»

BIOLURREK HAMAR URTE EGIN DITU NEKAZARI eta abeltzain ekologikoei laguntzen. Joxe Uranga teknikariaren ustez, sektorea pixkanaka handitzen ari da.

#### Nola dago Nafarroako nekazaritza ekologikoen mundua?

Mugimendu txikia da, baina garbi dago gutika-gutika goraka badoala. Nafarroako kopuruak txikiak dira, baina aspaldidanik proportzioz salmenta gehien duen Estatuko tokia da. Dena dela, oraindik ere kontsumitzaileei informazio zuzena eskaintzeko premia dago. Nekazaritza aldaketa izugarri handia izan da, eta nik uste dut jendeak ez duela ikusten noraino aldatu den. Behi eroenak eta horrelako kasuek garbi erakusten dute zelan egiten diren gauzak. Eta hori ikusita, jendeak bere



• MIKEL SAIZ

neurriak hartuko ditu eta batzuk nekazaritza ekologikora hurbilduko dira.

#### Zer produktu ekologiko ekoizten dira Nafarroan?

Elkartean saiatu gara produktu guzietan ekoizpena bultzatzen. Produktu ia guzitiak lortu ditugu: baratzekoak, haragiak, esnea, ardoak... Bi falta zaizkigu, txerria eta oilaskoa. Bi haragi horiek guziz industrializatutakoak daude, eta prezioan lehiatzea zaila da. Guk kalkulatu dugu txerri ekologikoaren prezioa %70 handiagoa izan dela, eta oilaskoarena %250 handiagoa. Prezio horietan produktuek oso-oso zaila da.

#### Zergatik horren garestiak?

Elikadura produktuen prezioa garestitzen dutenak banatzaileen kostuak dira. Elikagaien prezioak jaisteko,

diru asko sartu da banaketa prozesuan bere kostuak murrizteko. Baina nekazaritza ekologikoak ez dauzka diruz lagundu diren azpiegitura horiek. Produktu guti dagoenez, kostuak igotzen dira banatzeko orduan. Ordainean, nekazaritza produktu ekologikoe kalitatea eskaintzen dute, osasun eta plazer aldetik. Eta ingurumena zaintzen dute. Elikagaiak ekoizteko politika oso behartuta dago. Egun, ongariari aldetik eta hainbat teknikaren aldetik errazagoa da ekoiztea, eta gehiago ekoiztea, baina ez kalitatezko produktua egitea. Esnea zuria aterako zaie, baina zuria bakarrik. Argi dago kalitatezko produktua egin nahi bada, garestiagoa izan dela, kostuak handiagoak izan direlako.

# hiria



Alicia Usanos, Iasone Cañada eta Mabel Cañada, Hirixkaren sortzaileak. • MIKEL SAIZ



Hirixka ekozentroak, denda ez ezik, taberna eta jatetxea ere baditu. • MIKEL SAIZ

## Prezio altuen oztopoa

Hirixkan oso zorrotzak dira produktuen «ekologikotasunari» dagokionez. «Ehuneko ehuna nahi dugu. Jendea hona lasaitasunez etortzea nahi dugu. Hona sartzearekin batera, badakite bertako guzia dela ekologikoa, etiketa begiratu gabe».

Baina zeintzuk dira produktu ekologikoak? CPAENek, Nafarroako nekazaritza produktu ekologikoen kontseilu arauemileak, emaniko arauen arabera egiten direnak. «Lurra edo animaliekin lanean diren pertsonen bere inguruko orekarekin eta planetaren orekarekin bat

atorren lana egin behar dute». «Ez da bakarrik pestizida ez erabiltzea, baita naturarekin halako harmonia sortzea ere, arbolak eta berroa paratzea, ganaduak bazkatzeko nahikoa toki izatea, basoa errespetatuko duen espazioa sortzea...».

Mabelek dioenez, «orain hainbat jende mundu honetara hurbiltzen ari da ez erabateko kontzientzia ekologikoa duelako, baizik eta ikusten duelako arriskua dagoela elikaduraren konbentzionalen».

Baina elikagai ekologikoen prezio altuak jendea uxatzen du. «Zenbait produktu ekologiko garestiagoak dira», onartu du Mabelek; «baina kontuan izan behar da horiek egiteko modua eta esfortza erabat ezberdina dela. Ordu laurden batean egin duten esku-muturreko kalean 700 pezetan erosten ohi-tuta gaude. Aldiz, bi hilabete eta erdian hazi den letxuga bategatik gehiegi iruditzen zaigu 130 pezeta ordaintzea. Hori aldatu behar dugu, elikadura gure osasunaren iturria baita. Bizitzan gehiago inbertitu behar da, eta gutiago txorakerietan. Jendeak elikaduran aurrezten du, baina gero gastatzen du botiketan, elikadura osagarrietan, bitaminetan. Eta hori, azkenean, garestiagoa da».

## Kanpoko produktuak, batez ere

Hirixkako produktu gehienak inportazioak dira, Frantzia, Italia eta Alemaniatik ekarritakoak. «Nafarroa aitzindaria da Estatuan produktu ekologikoei dagokionez, hektarea kopuruari, ekoizpenari eta barietateari erreparatuta», azaltu du Mabelek. «Oso ekoizle onak ditugu, baina ez dago kontsumitzeko oihuturik. Jendeak uste baitu ez dagoela kontsumitzeko produktu askorik. Eta, orduan, nekazariak ez dute halako produkturik egiten. Baina jogurtak, gurina eta esnea egin behar dira, saldu egiten direlako. Hirixka horren erakusle da».

Eonavarra elkarteari «hagitz ongi» iru-

## Kultura ekologikoaren zutabeak

NAFARROAKO PRODUKTU EKOLOGIKOEN mundua hiru zutabetan oinarritzen da: ekoizleak Biolur elkartean biltzen dira, kontsumitzaileak Landaren, eta kultura ekologikoa zabaltzea Eonavarren ardurara da.

● **Biolur:** Biolurrek hamar urte egin zituen otsailean. Egun 167 bazkide ditu, gehienak nekazariak eta abeltzainak, batzuk profesionalak eta beste batzuk ez. Badira ingurumen eta nekazaritza teknikariak ere, elikagai transformatzaileak eta kontsumitzaile batzuk. Biolurrek, besteak beste, laguntza tekniko ematen du Leader eta Interreg moduko proiektuak gauzatzeko; betiere kultura ekologikoari loturiko proiektuak. Ferien gisako ekitaldiak antolatzeko laguntza ere ematen du.

● **Landare:** Produktu ekologikoen kontsumitzaileen elkartea da Landare. 1992an sortu zen, eta egun 300 bat bazkide ditu. Landarek lokal titiki bat du Donibane auzoan, eta bertan saltzen ditu bere produktu ekologikoak bazkideen artean. Bazkide ez direnek ezin dute erosi Landaren.

Donibaneko lokala titiki geratu zaie, eta laster Arrotxapean berri bat irekiko dute. Arrotxapekoan, salmentak egiteaz landara, bazkideen arteko harremanetan sakontzea espero dute, hitzaldiak eta ikastaroak antolatuz.

● **Eonavarra:** Eonavarra 1994an sortu zen, kultura ekologikoa zabaltzeko eta dibulgatzeko xedez. Horretarako, batez ere, feriak egiten dituzte; Berbinzanako Nekazaritza Ekologikoaren Eguna eta Iruñeko Ogiaren Feria, kasu. Eonavarren, gainera, horrelako feriak antolatzen laguntza eskaintzen du. Eonavarra orain arte elkarleen elkarrekin, baina laster elkarrekin bilakatuko da eta bazkideak lortzeko kanpaina abiatuko du.

ditzen zaio Hirixka zentroarena, Neyda Guasamucare langileak erran duenez. «Merkaturatzen zailak diren produktuak zabaltzeko eta komertzializatzen arraz garrantzitsua da Nafarroan horrelako zentro handiak sortzea». Susana Armendariz, Landare kontsumitzaileen elkarteko dendaren arduraduna, iritzi berekoa da. «Landarek ongi ikusten du Hirixka», dio. «Argi dago kontsumo ekologikoei gora egin duela, pixkanaka baina irmo. Geroz eta denda gehiago irekitzen bada, ere gorago joanen da kontsumoa».

→ Asier Azpilikueta



# Aberri txikiez

**Esaldi bat.** Txikitan jolasten genuen tokikoak gara. Esaldia ez da nirea, baizik eta **Patxi Zabaleta** lege, literatur, politika gizonarena. Arestian aipatu horiez guztiez gain, leitzarria Euskal Herriaren etsai da, aste honetan agertu diren zenbait eranskailuren —pegatina euskaraz, Elhuyarrek dioenez— arabera. To marka. Gutxi eta elkar joka, Nafarroa beti aurrera. Etorkizun itzela Foru Erkidego-ko abertzale ezkertiarrena. Zorionez, aspaldidanik aldarrikapen politiko bat eta bakarra daukat buruan: kuba libre! Ahal dela, limoi ur txorrotada batekin.

**Hamaika aberri.** Neure txikitasunean —etxeko tresna elektriko, mus, kuba-libre gizona besterik ez naiz—, euskal literaturaren historiako izenbururik korapilatsueneko triologiaren —Arian oreka, Badena ari da, eta Ukoa dena da— egilearen aburua osatzera ausartuko naiz: ez gara toki bakarrek. Ez dugu aberri bat eta bakarra, baizik eta hamaika aberri txiki.

**Bi adibide.** Seguru asko neure ekarpen xumea ulergarriagoa izanen da kasuistika jesuitikoa makulutzat hartuta. Umetan, —alde batera— Eroritakoen monumentuaren inguruan aritzen ginen jolasean. Hartara, Zabalguneko umetzat dut neure burua —**Etaio** kapitainak edo eta **Aingeru Epaltzak** beza-

la—. Baina, nerabezaroan, Caldereria karrikako Diez tabernan egin genituen koadrillako lehen meriendak, hustu genituen lehendabiziko ardo botilak. Gauzak horrela, Alde Zaharreko nerabea ere banaiz —**Maribel Berian** edo eta **Jon Alonso** bezala—.

**Bost ibiltari.** Egungo haurren aberri nagusia egongela da. Etxeko egongelan ematen dute aisialdiko denbora gehiena. Errua ez da soilik umeena. Kortexe gehiago dago, eta haur gutxiago. Zailagoa da kalez kale jolasean aritzea. Neure seme-alabek —Jonek eta Larraitzek— egongelako alfonbraz, telebistaz, PlayStation 2az haratago aberri txi-

kirik eduki dezaten, noizean behin pasean eramaten ditut Iruñea zaharrean barna. Gauzak horrela, igande goizean bermuta hartzera ateratzen ginen bostok —Jon, Larraitz, pátineta, Action Man urpekaria eta bostok—.

**Lau galdera.** Zabalgunetik Gazteluko plazara jaitsi ginen, eta handik Nabarra aldera egin genuen. Aldapa tabernako jabearen erailketaren ondotik, inguruan zer giro dagoen ikusi nahi nuen. Ez genuen drogazalerik ikusi. Bai, ordea, polizia autorik. Hain zuzen ere horietako batekin gurutzatu ginelarik, Jonek galdera egin zidan: «Poliziak zer dira onak ala gaiztoak?». Azken bola-

dan guztia galderak besterik ez ditu egi-ten haur madarikatuak. Nik neure buruari galdera egin nion, eta neure buruak —seguru asko garai bateko militantzien poderioz— erantzun garbia eman zidan: gaiztoak. Semea, baina, bestelako erantzuna eman nion, zuhurragoa. «Coca-colarik nahi al duzu?», o-ldartu nintzaion. «Bai! Bai! Bai!», berak, eta «Nik ere bai, bai! Bai!» alabak. Seme-alabek Cordovillan coca-cola bana hartzen zuten bitartean, Jon banintz bezala, beste galdera bat egin nion neure buruari: «Ona ala txarra da polizia hemendik ibiltzea?». Neure buruak beste galdera batekin erantzun zidan: «Bermuta, gorria ala zuria?».

● MIKEL SAIZ



Nabarrerriako bizilagunak, Aldapako tabernariaren hilketaren aurka.

● JOXE LACALLE



Patxi Zabaleta lege, literatur eta politika gizona.



panpilonia zirkus

## Bonbay gauak

Urriko lehendabiziko ortzirale goiznabarra. Estafeta karrikari bestondoa dario. Bai, zalantzarik gabe, ikasturte berria hasia da bi *Universitas Navarrensis*-etan, eta horrekin batera, gaueko denboraldi berria.

Bolada honetan arrakastatsua gertatzen ari da Alde Zaharreko pub-taberna bat, duela gutxi arte bertzelako atseginei emana. Lehenago, Pompaelo putetxea Lapeskeraren liburuan agertzeko moduko zuloa zen, enpresa gizonez betea omen, Alemaniatik Landabengo Volkswagenera bisitan etorritakoak, batik bat. Madame euskaldunaren senarra errusiarra zen, gainera, eta horrek genero beltzaren ukitua eman zion lekuari, Errusiako mafiaren beso luzeek gizonari *ukitu* berezia eman baitzioten, aurpegian arrasto nabariak utziz. Zehazki, gai kimi-

ko batzuk begitartera bota zizkieten gure hiriko tren-geltoki hitsean, mafiaren manupetik kanpo ibiltzeagatik. Ondotik, probintzia honetako agintariek hertsiarazi zuten, haien kolkoetara eskupekorik iristen ez zelako.

Orain, bertzelako giroa dago, 30 urtetik gorako jendearen biltokia, neska ahots eztiak kantu goxoan ari da, hiru musikariz lagundurik; edaleen gorputz gainean era guztietako janzkerak daude eta esku aunitzetan, berriz, urdin turkesa koloreko botila distiratsutik ateratako edaria, hots, Zafiro Bonbay. Ginebra mota horrek hornitzen ditu *gin-tonik* edo *gin-kasak*, baso handian, jakina. Izan ere, kubata eta katxarro erdiak desagertzen ari dira, zuritua ere desagertze bidean dagoen moduan.

Garai batean, aski zen *gin-kas* edo *gin-*

● JOXE LACALLE



Zafiro Bombay, urdin turkesa koloreko ginebra.

Enrike Diez de Ultzurrun

tzen da oso gaztetan txintxurra erretzeko erabilitakoa, hots, MG edo Gin Larios. Baina, jakina, gero adinez aurrera zihoazen zerbitzariak erakutsi ziguten *sekrete* eta grisek beti Larios eskatzen zutela, modu honetan, zehazki, Penintsula hegoaldeko hizkera petoa erabilita: «Yo un lario-cola y ezte un lario-limón». Horregatik, modan jarri zen Bifiter hura, edo Gordons edo Tankerade, eta orain, berriz, Zafiro Bonbay iritsi da. «Ez zegok honen parerik, motel», erran du koadrilako neskak, «ezta kolkoa astintzerakoan ere, ia gardatxo bana aleko» atera zaio ondokoari.

«Eta zer nahi duk, halako kanka-ron batengatik bi sos ordaindu, ala? Noizda-nik ez haiz atera? Tokia ere ordaintzen duk, komunak garbi zeudek eta kanpoan ez zegok bidea galaraziko digun entibadora-rik».



# Pello Ruiz

IRUÑEKO GANBERA ABESBATZAKO ZUZENDARIA

## «Zuzendariak taldea motibatzen jakin behar du»

Oso pozik» dago Pello Ruiz Iruñeko Ganbera Abesbatzako zuzendaria Alemanian eta Herbeheretan emandako kontzertuekin; hilabete bakarra izan du Ruizek bira prestatzeko, baina ahaleginak merezi izan duela azpimarratu du.

### ■ Zer moduz Alemanian eta Herbeheretan egin duen bira?

Oso ongi, oso pozik itzuli gara. Aretoa bete egin da kontzertu gehienetan, eta guretzat oso esperientzia polita izan da; niretzat, eta taldeko hainbat kidearentzat, gainerakoekin bat egiteko lehen aukera izan da bira hau, eta dena ongi aterata da. Hasieran beldur ginen, abeslari berriak etorri direlako azken hilabeteetan, eta uste genuen goizegi zela halako bira egiteko; baina abesbatzak eta, batez ere, Jesus Hernandez kideak bira hori antolatzeko egin duen lana kontuan hartuta, ezin genuen dena bertan behera utzi.

### ■ Biran eskaini duzun errepertorioan, Nafarroako hainbat konpositore garaikideren lanak abestu dituzue; nolako harrera izan dute?

Oso harrera ona izan dute; duela gutxi, hain zuzen ere, Iñigo Casali konpositorearekin egon nintzen, eta erran nion haren obra izan dela Alemanian arrakasta gehien izan duena. Kontzertuak bukatzean askok erraten ziguten Casaliren lana gustatu zitzaizela gehien. Nafarren lana ezagutzera emateko aukera ere izan da bira hau.

### ■ Eta abesbatzarentzat, zein neurritan izan da edo izanen da garrantzitsua biran lortutako arrakasta?

Halako birek beti balio dute zeure burua ezagutzera emateko eta kanpoko jendearekin harremanak estutzeko. Dena den, halako biren fruitua normalean ez da berehala jasotzen. Orain erein, baina agian hemendik urte batzuetara jasoko dugun uztaz izaten da.

### ■ Zuretzat nolako esperientzia izan da, kontuan hartuta irailean zuzendari-tza hartu zenuenetik lehen erronka garrantzitsua izan dela?



Iruñeko Ganbera Abesbatzak bira arrakastatsua egin berri du Alemanian eta Herbeheretan; Pello Ruiz abesbatzako zuzendariarentzat lehen erronka nagusia izan da, irailean hartu baitzuen kargua, Koldo Pastorren eskutik.

Esperientzia polita izan da, baina lan handia egin behar izan dugu oso tarte laburrean. Hori dela eta, erronka izan da, ez genezake nola aterako zen dena, eta, azkenean, emaitza ona izan da.

### ■ Kargua hartu zenuenean, zuzendari bakoitzak abesbatzari bere ukitua ematen diola erran zenuen; zein da Pello Ruizen ukitua?

Beno, nik uste dut hori aurrerago ikusiko dela, epe luzearako lana dela. Noski, pentsatu nahi dut taldeak zuzendariaren lanarekin hasieratik bertatik gozatzeko duela, hau da, taldea motibatze eta taldeari ilusioa emateko gai naizela, hori funtsezkoa baita. Dena den, kanpotik, aurrerago sumatuko da nire ukitu hori zein den.



● EGUNKARIA

«Niri musika garaikidea asko gustatzen zait, baina bestelako piezak ere ez ditut baztertzen; hunkitzen nauden edozein musika interesatzen zait»

niretzat, eta Iruñeko Ganbera Abesbatzara ailegatu baino lehen ere beste taldeetan jorratu dut musika mota hori. Iruñeko Ganbera Abesbatzaren errepertorioan funtsezko garrantzia du musika garaikideak, gurea baita obrak nahiko maiz estreinatzen dituen talde apurretako bat. Hori, noski, aprobetxatu behar dugu, baina ez du erran nahi Koldo

### soslaia

Iruñeko Ganbera Abesbatza ez da Pello Ruizen talde bakarra; Sine Nomine Musika Mintegiko sortzaileetako bat izan zen, eta han jarraitzen du lanean oraindik ere; gainera, Barañaingo Abesbatzako zuzendaria da.

Abesbatza zuzendari ez ezik, oboe irakasle ere bada Pello Ruiz, Iruñeko Joaquín Maya musika eskolan. Baionan eta Iruñean egin zituen oboe ikasketak. La Pamplonesa musika bandan oboe bakarlaria da; eszedentzia eskatu zuen Iruñeko Ganbera Abesbatzaren ardura hartu zuenean.

● EGUNKARIA

Pastor aurreko zuzendariaren ildo ber-bira jarraitu behar dugunik. Hori ezinezkoa da. Niri musika garaikidea asko gustatzen zait, baina bestelako piezak ere ez ditut baztertzen. Hunkitzen nauden edozein musika interesatzen zait.

### ■ Ezaguna da Iruñeko Ganbera Abesbatzaren egoera ekonomiko larria; alderdi artistikoan ere zuzendari-tzako azken urteotako aldaketek ez diote onik egin; zurekin egonkortasuna lortuko du, azkenik?

Zaila da hori jakitea. Argi dago egoera ekonomikoa ez dela ona, eta agian erakunde publikoek gehiago lagundu beharko luketela, baina nik uste dut ekimen pribatura jotzeko garaia dela. Talde asko gara, eta argi dago denentzat dirurik ez dagoela. Abesbatzak erakutsi behar du produktu on bat duela, eta hori saldu egin behar du. Horretarako, lan egin behar du alor guztietan. Gauza askok funtzionatu behar du dena ongi ateratzeko. Ez da bakarrik zuzendariaren lana, jende askoren lana baizik.

→ Edurne Elizondo





## Nafar Kronika

Aitor Arotzena

### Navarra va bien

**N**afarroa ongi doaie. Espainiako presidentearen erranak berdintzeko moduan izanen da Miguel Sanz Nafarroako presidentea. Aste honetan, Jaume Matas Espainiako Gobernuako Ingurumen ministroa eta guzi etorri da lege kanpoko eta ikerketa ugariet diotenaren arabera hagitz arriskutsua den Itoizko urtegiaren osagarri Nafarroako kanalaren lehen harria jartzera. Lastima, Itoizko hiru solidarioek emandako espekta-kulua... Ongi informatutako iturriet diotenez, Bin Ladenek berak Nafarroan sartu omen zituen talde terroristaren adar bateko kideak ziren hiru lagunak.

Nafarroa ongi doaie. CIESe egindako azken inkestaren arabera, UPN boterean sendotu eginen litzateke gaur Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egitekotan. Batasunak, berriz, erdira jautsiko luke hautetsi kopurua eta Aralarrek bi lortuko litzuke. Herri bakoitzak merezi dituen agintariak omen ditu. Dena den, alderdi guziak pozik agertu dira emaitzekin, denendako bada alderdi baikorrik. Batasunak ere arrazoiak zuela dio, Aralarrek ezker abertzalea zatikatuko zuela zioen.

Nafarroa ongi doaie. Orain artean bizi-lagun (?) euskaldunek zuten txakolina ekoizteko monopolioa. Orain Lakuntzan hasi dira mahats pikor berezi hauek biltzen. Nafarroako Gorria ez ezik, Txakolinaren Jatorrizko Izendapena lortuko dugu laster.

Nafarroa ongi doaie. Poliziak 350 dosi haxis harrapatu ditu Tuteran. Orain, herriaren zaindariak bere zaindaritzapean izanen dituztela pentsatzekoa da eta, agian ere, ez dira desagertuko bertze zenbait herrialdetan gertatzen den bezala.

Nafarroa ongi doaie baina... nahiz eta Bin Ladenek bere mutikoak Nafarroako kanaleko lanen lehen harriaren ezartzeko ekitaldi ofiziala zapuztera bidali, oraindik ez da aliatuekin batera Afganistan bonbaz josten hasi. Horregatik, foruzainen talde berezi bat lanean hasi da, entrenamendu are bereziagoak egiten. Solidarioak atxilotzen esperientzia handia dute, tartean Iban delako bat, eta hori baliagarria izanen da, noski, tal-ibanak xehatzeko.

Nafarroan Administrazioan aterako dituen ehun lanpostuetatik batean eskatuko da euskarak jakitea, beraz, badaezpada, Navarra va bien.

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Etzarri-Aranatz:** Danburia taldeak Pirinioetako herri musika eskainiko du gaur, 20:30ean, kultur etxean.
- **Iruñea:** Su Ta Gar, La Polla eta Reincidentes taldeen kontzertua izanen da gaur, Euskal Jai gaztetxean.
- **Lodosa-Sartaguda:** Nafarroa Oinez-en karietara, igandean, besteak beste, Etsaiak, Selektah Kolektiboa, Idi Bihotz, Harlax, Urtz, Doctor Deslai eta Oskorri taldeek joko dute.

### HITZALDIAK

- **Iruñea:** Mikel Aranburuk, Eusko Ikaskuntzako Nafarroako ordezkariak, *La mujer en el ritual de la fiesta* izenburuko hitzaldia emanen du astelehenean, 20:00etan, Iruña Taldearen egoitza berrian (San Lorentzo, 13).
- **Iruñea:** Imanol Esnaolak, gazte hizkeraren ikertzaileak, *Gazte eta euskalduna izatea hiri erdal-dun batean* hitzaldia eskainiko du asteartean, 20:00etan. Iruña Taldearen egoitza berrian.
- **Tafalla:** Toti Martinez de Lezea idazlea eleberririk historikoz az solastatuko da asteazkenean, 19:30ean, liburutegi publikoan.

### BERTSOLARIAK

- **Iruñea:** Ostegunean Mariano Izetaren omenezko bertso musikatuak jarritzko dituzte Mikel Alzuart, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Jon Sarasua bertsolariak, 20:00etan, Gurutzeko plazako institutuko areto nagusian.

### ZINEMA

- **Burgi:** *Txotx*, 40 ezetz eta *Altsasu* 1936 film laburrak emanen dituzte bihar, 20:00etan, udal-etxean.

### ANTZERKIA

- **Iruñea:** Teatro Paraiso taldeak *Kox-kox* haurrentzako antzezlan eskainiko du bihar, 12:00etan, Gaiarre antzokian.
- **Iruñea:** Patxi Hernandok haurrentzako ipuin musikala kontatuko du asteazkenean, 18:00etan, Iruña Taldearen egoitza berrian. Ondoren txokolate jatea izanen da.

### ERAKUSKETAK

- **Bera:** Euskal Herriko kantagintzaren historia biltzen duen *Kantuketan* erakusketa

interaktiboa kultur etxean izango dugu ikusgai hilaren 28a arte.

- **Iruñea:** Ines Zudaireren *El hombre, el arte y la naturaleza* margolanen erakusketa Carlos Ciriza galerian izanen da (Kale Berria, 123) hila bukatu arte.
- **Iruñea:** Amaia Arangurenen *Figuras II* margolanen erakusketa Ormolu galerian izanen da (Paulino Caballero, 42) hilaren 31 arte.
- **Iruñea:** Patxi Martzillaren marrazkiak eta olio pinturak hila bukatu arte ikus daitezke Alkartetxean, egunero 11:00etatik 21:00etara.

### LEHIAKETAK

- **Literatura:** Iruñeko Udalaren Egile Berrientzako XVI. Literatur Lehiaketarako lanak hilaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira. Lehiaketak lau sail ditu: olerkia, narrazio laburra, bertsopaperak eta komikia. Argibideak, 948-222008 telefonoan edo [cultura@ayto-pamplona.es](mailto:cultura@ayto-pamplona.es) helbide elektronikoan.

### BESTELAKOAK

- **Lodosa-Sartaguda:** Nafarroa Oinez, ikastolen aldeko festa. Bertan laguntzeko deitu 669-552096 telefonora (Joxean).

• JOXE LACALLE



## Anthrax

Estatu Batuetako trash metal talde batek Anthrax izena du. Haren disko batek 'Spreading the disease' (Gaitza zabaltzen) izenburua du. Eta beste batek, 'Attack of the killer B's' (B-ren hiltzaileen eraso). Anthrax taldekoek erran dute ulertzen dutela orain euren izena ez dela «sobera egokia», baina, era berean, erran dute ez dutela aldatuko. «Duela hogeitaz urte izena asmatu genuenean, oso egokia zen, agresiboa, eta, gainera, inork ez zekien zer erran nahi zuen», gaineratu dute.

Izena aldatzeko eskatzea ere! Estatu Batuak paranoiaren menpera erori dira. Eta paranoia hori mundu osora zabaltzen ari dela dirudi. Argazkia Iruñean egina da: Pitillasko bizilagunak, moztarra ahoan, errausketa plantaren aurkako protestaldian. Zera... irudiak ez du batere zerikusirik antrax bakterioarekin, baina nola edo hala bete behar zen hutsune hau.